

ENEKO GOIAREN URGENTZIAZKO AGERRALDI ESKAERA ZARAUTZ HIRIBIDEKO 31 ETA 33. ZENBAKIETAKO HAINBAT FAMILIEN ETXE HUSTEA DELA-ETA

Atzo, azaroak 19, goizaldeko 01:00ak aldera, Zarautz Etorbideko 31 eta 33. zenbakieta eraikinei eragin zien lur-jausi bat gertatu zen. Eraikin horietan izandako luiziaren ondorioz, Donostiako hiru familia etxetik atera behar izan dira.

Nolanahi ere, familia horiek alde batera utzita, gasa moztu da Zarautz etorbideko 27tik 33ra bitarteko zenbakien arteko eraikinetan, eta horrek bertan bizi diren pertsonengan eragin zuzena du, kaltetuek diotenez, ezin baitute dutxatu eta/edo sukaldean ezer prestatu.

Bestalde, Zarautz kaleko bizilagunek, metro-pasantearen lanak direla-eta, etengabe jasaten ari diren zarata eta bibrazio maila handia salatu dute Udalean eta Euskal Trenbideak Sarean.

2017ko irailean, kaltetutako blokeetako bizilagunen ordezkariak uko egin zioten aurretiazko okupazio-aktak sinatzeari; izan ere, ETSren obrek mugakide diren elementuetan izan zitzaketen ondorioen berri ez zitzaielako eman; esaterako Zarautz hiribideko blokeen atzealdean kokatutako magalean gerta zitekeena.

Aipatutako magalean izan da, hain zuzen ere, azaroaren 19ko gauean erori dena. Metro-pasantearen lanen ondorioz bibrazio-maila handia jasan duena, eta aipatutako eraikinean eragin zuzena izandakoa.

Jakina, etxe hauetan bizi diren pertsonak oso kezkatuta daude, eta beharrezko azalpenak ematea eskatu dute; aipatutako lur-jausia eragin duten arrazoiak geologikoki

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

aztertzeko, ETSren obrekin duten lotura edo ez argitzeko, eta bizilagunen segurtasuna bermatzeko hartu beharreko neurriak ezartzeko.

AGERRALDI ESKAERA

Hori dela eta, Garbiñe Alkizak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, indarrean den Udalbatzaren Erregelamendu Organikoaren 136. artikuluari jarraiki, **ENEKO GOIA ALKATEAK UDALBATZAN URGENTZIAZKO AGERRALDIA** egin dezala eskatzen dugu, Zarautz hiribidearen 27tik 33ra bitarteko zenbakien artean, atzeko aldean dagoen magala erortzea sortutako arrazoiei buruzkoa; kaltetutako pertsonen segurtasuna bermatzeko hartu beharreko neurriei buruzkoa, eta bizilagunei eragiten ari zaizkien kalteak arintzeko hartu beharreko neurriei buruzkoa.

Donostian, 2019ko azaroaren 20a

Garbiñe Alkiza
Concejala del Grupo Municipal EH Bildu.